

MOZIO ARRUNTA, MARIA INMACULADA IKASTETXEAREN ITXIERA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Maria Inmaculada ikastetxearen itxiera dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko apirilean prentsak iragarri zuen Donostiako Maria Inmaculada Lanbide Heziketako ikastetxeak 2021/2022 ikasturterako atea ixteko asmoa zuela.

Donostiako Maria Inmaculada Lanbide Heziketako ikastetxea Groseko auzoan dago, Ategorrieta Hiribidearen eta Marino Tabuyo eta Jose Maria Soroa kaleen artean. 101 urteko ibilbidea duen ikastetxea da. Egun lanbide heziketako 5 modulu eskaintzen dira bertan, 150 ikasle inguru ditu eta 14 langile.

Egun ikastetxea dagoen partzelaren kalifikazioa tertziarioa da Donostiako HAPOan, honek ikastetxearen erabilera bere horretan baimentzen duelarik. HAPOaren kalifikazio honen gainean, 2018tik Donostiako Udala eta Maria Inmaculada kongregazioa xehetasun azterlanean aritu dira lanean, garapen berri bat egin ahal izateko.

Apirilaren 12ko Donostiako udal batzordeetan xehetasun azterlana aurkeztu zen, eta Donostiako Udalbatzan onartzeko zain dago. Maria Inmaculada kongregazioaren Groseko partzelan zazpi solairutan banatutako 84 gelako hotela, jatetxe bat, elikagaien denda bat eta aparkatzeko lau solairu eraikitzea aurreikusi du aldeko txostenak dituen espediente honek. Azterlan berean irakaskuntza erabilerarako 2.275 m² aurreikusi dira.

Nahiz eta xehetasun azterlanean irakaskuntza erabilerarako eremu bat aurreikusi, Maria Inmaculada kongregazio erlijiosoak eskola ixteko asmoa aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, ikasleak ikastetxerik gabe utziz eta langileak lanik gabe utziz. Badirudi erabaki hau sorpresaz hartu duela Donostiako Hirigintza Sailak ere, eta hortaz, onartzeko zegoen xehetasun azterlana atzeratu egin da.

Antza, Maria Inmaculada kongregazioak, Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hotela, jatetxea, supermerkatua eta parkinga eraikitzeke erabakia hartu nahi dute egungo ikastetxearen eta auzoaren errealitatea kontuan hartu gabe.

Lehenik, ez delako inguruan ixten den lehen ikastetxea; orain gutxi, Mariaren Bihotza ikastetxeak auzo berean itxi zituen bere atea, beste hotel bat egiteko.

Bigarrenik, xehetasun azterlanean irakaskuntza erabilera izango zuen espazio berri bat aurreikusten zelako; eta oraindik ere eremu horrekin zer gertatuko den jakin gabe jarraitzen dugulako, bertako langileei ikastetxe berri bat eraikiko zela esan zitzaaien arren.

Eta azkenik, lanbide heziketako modulu hauek ikasten ari ziren ikasleak beste ikastetxe bat bilatzera behartuta daudelako.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Donostiako Maria Inmaculada ikastetxearen itxiera dela-eta, bitartekari lanak egin ditzala Maria Inmaculada kongregazio erlijiosoaren eta ikastetxeko langileen artean, xehetasun azterlanean aurreikusitako irakaskuntza erabilera mantendu eta egungo lanbide heziketako moduluak eta bertako langileak mantendu ditzan ikastetxean.

Donostian, 2021eko ekainaren 4an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea